



❖ MUSIKA

Javier Garayalde Jazz Laukotea'ren kontzertua

Javier Garayalde Jazz Laukotea entzuteko aukera izango da gaur Biterin. Jazz laukotea Javier Garayalde, Luis Jimenezek, Marcelo Escrichek eta Aurelio Zabalegik osatzen dute. Hitzordua, gaur, 20:00etan. ||

❖ SAHARA

Janari bilketa gaur eta bihar

Sahararako janari bilketa egingo da gaur eta bihar herriko supermerkatuetan. Nahi duenak, diru laguntza emateko aukera ere izango du 3035 0080 94 0800054177 kontu korrantean. ||

❖ ONGINTZA

Balnarioko inpresok iritsi dira

Ongintzak inpresoko herritarrei jakin arazi nahi die neguan zehar balnearioetara joateko inpresok iritsi direla. Eskuratzeko Ongintzako harreratik edo Goiz Eguzkitik pasa beharko dute. ||

❖ WUKRO

Erakusketako artelanak ikusi eta erosteko azken aukera gaur

Wukro herrian Angel Olan misiolari hernaniarrak dituen proiektuak laguntzeko artelan erakusketa dago Biterin. Erakusketa ikusi eta bertako obraren bat erosi nahi duenak, gaur izango du azken aukera. Erakusketa zabalik izango da arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. ||

Santo Tomas eguna nonahi ospatzeko aukera izango da asteburuan

Gaur Inmakuladan ospatuko dute Santo tomas eguna, bihar Plaza Berrin eta Orkolagan, eta etzi berriz, Goiz Eguzkin, Gazte Txokoan eta Zaharren Egoitzan.

SANTO Tomasko feria, txorizoa eta ogia dio Santo Tomas egunean hainbestetan kantatzen den abestiak, hoiek baitira Santo Tomas egunaren berezitasun nagusiak. Hernanin, badira urtero urtero, jai egun honi hutsik egiten ez dieten auzo, talde eta elkarteak; hortaz, aurten ere izango da txistorra jan eta jai egun bikaina pasatzeko aukera herrian.

Gaur Inmakulada ikastetxean

Gabonetako oporrak iristear dira ikasle askorentzat, eta hartu aurretik, Inmakulada ikastetxean Santo Tomas eguna ospatzeko ohitura mantentzen dute. Baserritar jantziak ipini eta goizeko 10:30etatik 12:00etara giro ederra izaten da ikastetxean. Aurtengoan ere izango dira ikasleek egindako barazki postuak, merkatu solidarioa eta nola ez, txistorra taloekin eta guzti jateko aukera.

Bihar Plaza Berrin eta Orkolagan

San Joan Konpartsak ere, urtero hartzen du Plaza Berri



Orkolagan Santo Tomas festa ospatuko dute bihar.

ingurua animatzeko konpromezua eta aurten ere, jai bikaina antolatu du. 11:30etatik 14:30etara talogileak izango dira Plaza Berrin, trikitixa doinuez girotuta. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera berriz, Ezpeletako txarangarekin erromeria izango da.

Santo Tomas eguna ospa-

tzen zaleak izaten dira Orkolagako auzokoak ere, eta aurtengo jai bihar egingo dute. 11:00etatik aurrera sagardo dastaketa izango da, txistorra eta gaztañekin. 11:30etatik aurrera berriz, umeentzako jokoak. Festa eguna Anboton jokatuko den II. Toka Txapelke-

● Bihar Plaza Berrin, San Joan Konpartsak antolatuta talogileak izango dira goizean, eta arratsaldean erromeria.

tarekin bukatuko da eta gerturatutako edozeinek hartu ahal izango du parte, 13:30etatik aurrera.

Igandean Goiz Eguzkin, Gazte Txokoan eta Zaharren Egoitzan

Santo Tomas Eguna egunean bertan ospatuko dutenak ere izango dira herrian. Goiz Eguzkin, txapelketetako sari banaketa egin ondoren txistorrada herrikoia egingo dute, 11:00etatik aurrera.

M^a Magdalenako Zaharren egoitzan, gabonetako ekitaldiak Santo Tomas egunarekin hasiko dira, igandean arratsaldeko 17:00etan.

Azkenik, gazteek ere izango dute txistorra jateko aukera, Gazte txokora hurbilduz gero, han ere eguna ospatuko baitute. ||

◆ 'ESKA EZAZU HARAGIA EUSKARAZ' kanpaina

Hogeita hamar sari banatu dituzte herritarren artean

Udaletxeak Eska ezazu euskaraz kanpainako zozketa egin du eta guztira hogeita hamar lagun izan dira sarituak; herriko harategi bakoitzean bi. Saritu bakoitzak 50 euroko erosketa egin ahal izango

du harategian, debalde.

Hamabost harategi

Kanpaina Buruntzaldeko udalek antolatu dute eta Hernanin hamabost harategi hartu dute parte. ||

Hogeita hamar sarituak:

Maria Etxeberria
Daniel Pacheco
Maite Iriarte
Eulali Etxeberria
Sara Gil
Ane Maiz
J. Ramon Zubillaga
Maite Martin
M^a Antonia
Idigoras

Candi Etxeberria
Rafi Asensio
Joseba Mendizabal
Kontxi Mujika
Ohiane Blasco
Ines Valverde
Gorka Arruti
Itziar Sarasua
Juxta Goikoetxea
Marian Adrián
Martina Alkain

Lupe Urruzola
Glori Mendinueta
Elena Garcia
Itziar Olaizola
Aziz Chiguer
Mohamed
Ramachi
Xabi Sarriegi
Begoña Salvador
Arantxa Ubarburu
Axun Olaizola

SANSONATEGI
Martinezegi, sotoa 13 - 943 33 15 77 - www.sansonategi.com

Bihar, larunbata, afaria eta dantzaldia,
XARITZA taldearekin. Giro ederra!!
(Urtebete aldiz aurretik egiza eskertuko da: 943 33 15 72)

Zatoz !!

MENU:
Herriko konbinatuak
Pommar baltatikko bistona
Zainzuri epelak
Lupia labean
Azpizuna lagun-garnietan
Ardoa herrikoa
Kafea, kupa purua... eta dantzara!

40 euro

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

Lan-Aholkularitza - Fiskala - Aseguruak Inbertsioak - Zerbitzu Juridikoak

Brintza

Aurrikuspen pentsio plan bat nahi duzu?

Etorri guregana eta MAPFREko pentsio planen berri emango dizugu

www.brintza.com

Urbietza 15 - Hernani - Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892



TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● Egunez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Goizean hodeiak eta euria izango diren arren, eguraldiak hobetzeraz egingo du. Iparraldeko haize ahula ibiliko da eta tenperaturak, gutxi, baino gora egingo du.

BIHAR Asteburua giro egonkorrekin hasiko dugu. Laino gutxi izango dira eta tenperaturak ere gora egingo du, nahiz eta ez den asko nabarituriko.

◆ ZIKUÑAGA

Errapi festa ospatuko dute bihar Zikuñagako Zikuzuloan

Aurtengoa seigarren edizioa izango da eta egitaraua honakoa izango da: 11:00etan haur eskulana eta mural margoketa; 14:00etan bazkaria; 16:00etan *Lorearen nahia* dantza, 16:30etan bideo emanaldia, 17:30etan Adarragako txokolata, 18:00etan poesia *entre acordes* eta 19:00etan Barruren musika. Errapikoen lanak ere ikusgai izango dira. ||

◆ KARBONERA

'Asian barrena' argazki emanaldia

Karboneran Asian barrena bitzako esperientzia erakutsiko dute argazki emanaldi baten bidez. Hitzordua, Karboneran, gaur 20:00etatik aurrera. ||

◆ KAROBI ELKARTEA

Urteurren afaria gaur

Karobi elkartekoek urteurrena ospatzeko afari ezin goxoagoa antolatu dute gaurko. Afarira gaitontzeko elkarrekin ere gonbidatu dituzte, eta menua 26 eurokoa izango da. Afaria 21:00etan Karobi elkartearen. ||

◆ MUS TXAPELKETA

Garin tabernan gaur gauean

Bikotekako mus txapelketa jokatu dute gaur gauean Garin tabernan. Izena eman nahi duenak bertatik pasa beharko du. Txapelketa gaueko 22:30etan hasiko da. ||

Auzoko mus txapelketa igandean, Osiñagan

Aurten ere izango da mus txapelketa Osiñaga auzoan, 17garren edizioa alegia. Txapelketa Elorrabi sagardotegian jokatu da igandean, 16:00etan, eta izena eman nahi duenak egunean, lekuan bertan egin dezake, 20 euroren truke. ||

◆ ZIKLOTURISTAK

Federazio lizentziak

JOCC Zikuñagako Ama 2009ko federazio lizentziak tramitatuko ditu. Egin nahi izanez gero, gaur bulegoan izango dira 20:00etatik 21:00etara. ||

◆ AAM

Kontzentrazioa Zinkoenean

Amnisiaren Aldeko Mugimeduak antolatuta kontzentrazioa izango da gaur Zinkoenean, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. ||

† MANOLO TEJEDOR ESCUDERO

- Goian bego -

*Urak dakarrena
urak darama.
Zuk emandakoa
gurekin gelditzen da*



ZURE ILOBAK:
IDOIA, JON, IRATXE, ARITZ

Hernanin 2008ko abenduaren 19an

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Sarrera bat aurkitu dugu Plaza Berriko servikutxan, ahaztu duenak deitu: 653 748 350. Pisua salgai, azken pisua. Eguzkitsua, aszensora, ganbara... Deitu: 943 55 04 26
Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. Deitu: 616 383 168.
Alokatzeko: Pabiloi industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). 943 33 05 16 (20:00etatik aurrera).
Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.
Etxe konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).
Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. Atzietan 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berbrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ESKOLA KIROLA - BIHARKO PARTIDUAK

SASKIBALOA			FUTBOLA			
Infantil mut.	Lang-Asti.-Lek Ointxe	Kiroldegian	Bihar 10:30	Infantil nesk.	Hernani-Umieta	Zubipen Bihar 09:00
Infantil mut.	Elizabko-Epi	Kiroldegian	Bihar 12:00	Infantil mut.	Urumea-Axular	Zubipen Bihar 09:00
Infantil mut.	Euskalduna-Lan.-Uru. CDH	Andoainen	Bihar 11:30	Infantil nesk.	Elizabko-Aralar	Zubipen Bihar 10:15
BOLEIBOLA			Infantil nesk.	Euskalduna-Lan-Uru	Andoainen	Bihar 11:30
Infantil nesk.	Presentacion-Langile		Bihar 11:30			

Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA



BALANTXA



ANTZIOLA, 12 943 576115 HERNANI NAGUSIA, 17 943 334022

-%3

BERRIAK

MP3



MP4

MP5



3 URTEKO GARANTIA

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU